

**Langile kopurua handitu egin da, lau lanpostu sortu baitira**

## **EROSKI-K DONOSTIAKO GROSEKO SUPERMERKATUA ERALDATU DU TOKIKO SASOIKO PRODUKTUEN ESKAINTZA INDARTZEKO**

- Eraldaketan, 300.000 euro inbertitu dira
- Saltokiak arreta pertsonalizatua indartu du, okindegia eta harategia jarri baititu
- EROSKI liderra da tokiko produktuen salmentan: euskal ekoizleen 9.000 produktu inguru dauzka

**Donostia, 2015eko uztailaren 9a.-** [EROSKI](#)k supermerkatua eraldatu du Donostiako Kale Nagusiko 33.ean, Grosen, eta egokitu egin du Zurekin eredu komertzial berrira. Hala, bezeroei tratu pertsonalatuagoa eman nahi die, eta era berean tokiko produktuen eta sasoiko produktu freskoen salmenta indartu, elikadura osasungarria sustatu eta eguneroko erosketan aurrezteko modu berriak eskaini. 300.000 euro inbertitu ditu denda eraberritzen.

Maiatz amaieran hasi ziren lanean, eta freskoen eremuan jarri dute ardatza, goitik behera berrituta, tokiko sasoiko produktuen eskaintza zabalari balioa emateko. Eskaintzen artean, nabarmentzekoak dira barazkietakoak (Arrial eta Alberro), eta harategikoak (Urkaiko haragia, Ezkuz, Txerri-Txiki) eta urdaitegikoak (Orortegi). *"EROSKI dendak beren inguruan ekoizten diren jangaiak merkaturatzeko plataforma irekiak dira. Konpromiso horren bidez, gastronomiaren aniztasunaren alde egiten dugu, eta, hala berean, tokiko nekazaritzako elikagaien sektorearen iraupenaren eta bertako aniztasunaren alde, hori egitea eskualdearen pizgarri jardutea baita"*, azaldu du Maria Oterminek, supermerkatuko buruak.

Donostian eraldatutako saltokiak 40 langile ditu orain, lehen baino lau postu gehiago. Dendako taldeak 600 prestakuntza ordu baino gehiago jaso ditu harategiaren, arrandegiaren eta fruten eremuan eta bezeroari erantzuteko zerbitzuarenean.

*"Lanak egin bitartean, bezeroari ahalik eta trabarik txikiena egiten saiatu gara, lan eremuak hesituta. Eskerrak eman nahi dizkiogu, beti bezala etorri baita erostera"*, azaldu du Maria Oterminek. *"Gainera, eredu berriaren inguruan azaldu duten interesa eta galderak direla medio, gogotsuago heldu diogu prozesuari"*. Eredue komertzial berrira aldatutako beste supermerkatuetako emaitzei begira, ikusten da onarpen handia izan duela, %9 handitu baitira salmentak.

Berrikuntzen artean, nabarmentzekoa da atal guztietan egin dela arreta pertsonalatuaren alde. *"Saltokiak arreta pertsonalizatua berreskuratu du harategian eta okindegian. Gainera, bezeroari ematen zaion arreta aldatuz joango da EROSKI Kluba*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria    Tel: 946 211 214  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

EDURNE IZQUIERDO  
ZIORTZA BERISTAIN

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)

*txartelaren bitartez egindako eskaintzekin eta promozioekin; dagoeneko, Euskal Autonomia Erkidegoko salmenten %85 biltzen ditu", esan du dendaburuak.*

Supermerkatu berrituak azken berrikuntza teknologikoak ere badakartza efizientzia energetikoa hobetu eta ingurumenean duen eragina gutxitzeko; esaterako, elikagaiak kontserbatzeko hozte altzarien ixteko sistema.

## **Liderra tokiko produktuetan**

EROSKI liderra da tokiko produktuen salmentan: euskal ekoizleen 9.000 produktu inguru dauzka. Iaz, 2.000 euskal hornitzaileekin baino gehiagorekin aritu zen kooperatiba lanean, eta 600 milioi euro baino gehiagoren erosketak egin zizkien.

Kooperatibak eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten 2013an, tokiko elikagaien sektorea bultzatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen ehunaren aniztasunari eusteko.

## **Elikadura osasungarriaren promozioa**

EROSKI lan handia egiten ari da elikadura osasungarriaren alde; horregatik jarri du "Elikadura Ekologikoa eta Dietetikoa" atala, zazpi modularekin. Elikagaiekiko intolerantziak dituzten produktuen sorta ere zabaldu du saltokiak; besteren artean, glutenik gabeko elikagaiak. Donostian, erreferentziazko banatzaile bihurtu da EROSKI, beren elikaduraz arduratzen direnentzat edo glutenik gabeko, azukre gutxiko, gatz gutxiko eta horrelako beste dieta batzuk egiten dituztenentzat.

Zentro eraberrituak 1998an ireki zituen ateak. EROSKI 1981etik dago Donostian. Gipuzkoako hiriburuan, beste bederatzi supermerkatu ditu, hipermerkatu bat, gasolindegia bat, zortzi EROSKI Bidai agentzia, zortzi If lurrindegia eta Forum Sport denda bat.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria    Tel: 946 211 214  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

EDURNE IZQUIERDO  
ZIORTZA BERISTAIN

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)